Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2868

EBAZPENA, 2011ko apirilaren 6koa, Energia eta Meategien zuzendariarena, Orozkoko eta Laudioko udalerrietan, «Jesuriko Parke Eolikoa» izeneko energia elektrikoa sortzeko instalazioari baimena emateko dena.

AURREKARIAK

Bat.– Energia eta Meategien zuzendariaren 2008ko apirilaren 23ko Ebazpenaren bidez, Guascor SA enpresak aurkeztutako aurreproiektua egokitzat jo zen, Jesuri izeneko tokian parke eoliko baten instalazioa egiteko.

Bi.– 2008ko urriaren 22an, instalazio horretarako administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren gaineko azterlana eskatu zuen Guascor SAk, eta, horretarako, ingurumen-inpaktuaren gaineko proiektua eta azterlana aurkeztu zuen.

Hiru.– Parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuan ezarritakoa betez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean eta Proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen Testu bategina onesten duen urtarrilaren 11ko Legegintzako 1/2008 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, jendaurrean jarri dira, hilabeteko epean, exekuzio-proiektua eta dagokion ingurumen-inpaktuaren gaineko azterlana.

Lau.– Hori horrela, eta jendaurreko informazioaren izapidearen barruan, iragarkiak argitaratu ziren: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2009ko apirilaren 29an; Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, apirilaren 6an; eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2009ko apirilaren 7an.

Izapide horretan bertan ere, iragarkia El Correo egunkarian argitaratu zen 2009ko apirilaren 9an, bai eta Orozkoko eta Laudioko udaletxeetako iragarkioholetan ere.

Bost.– Jendaurrean erakusteko izapideaz batera, sail honek exekuzio-proiektuari eta ingurumen-inpaktuaren gaineko azterlanari buruzko txostenak eskatu zizkien Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzari, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzari eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzari eta Osasun Publikoko

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2868

RESOLUCIÓN de 6 de abril de 2011, del Director de Energía y Minas, por la que se autoriza la instalación de generación de energía eléctrica denominada «Parque Eólico de Jesuri» en los términos municipales de Orozko y Llodio.

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Mediante Resolución de 23 de abril de 2008, del Director de Energía y Minas, se selecciona como idóneo para la instalación de un Parque Eólico en el emplazamiento de Jesuri el anteproyecto presentado por la empresa Guascor, S.A.

Dos.– Con fecha 22 de octubre de 2008, por Guascor, S.A. se solicita la Autorización Administrativa y Declaración de Impacto Ambiental de la citada instalación, aportando el correspondiente Proyecto y Estudio de Impacto Ambiental.

Tres.– En cumplimiento de lo dispuesto en el Decreto 115/2002, de 28 de mayo, por el que se regula el procedimiento para la autorización de las instalaciones de producción de energía eléctrica a partir de la energía eólica a través de parques eólicos, y de acuerdo con lo previsto tanto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, como en el Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos, el proyecto de ejecución y el correspondiente Estudio de Impacto Ambiental se sometieron a información pública, durante el plazo de un mes.

Cuatro.– A tales efectos, dentro del referido trámite, se publicaron los correspondientes anuncios, con fecha 29 de abril de 2009, en el Boletín Oficial del País Vasco, con fecha 6 de abril en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y con fecha 7 de abril de 2009 en el Boletín Oficial de Bizkaia.

En el mismo trámite el anuncio fue objeto de publicación en el periódico «El Correo» el 9 de abril de 2009 y anunciado en los Tablones de Anuncios de los Ayuntamientos de Orozko y Llodio.

Cinco.– Con carácter simultáneo al trámite de información pública este Departamento solicitó los informes correspondientes relativos al proyecto de ejecución y al Estudio de Impacto Ambiental a la Dirección de Calidad Ambiental, Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental, Dirección de Patrimonio Cultural y Dirección de Salud Pública del

Zuzendaritzari. Txostenak eskatu zitzaizkien, orobat, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzako Baso Zerbitzuari, Bizkaiko Foru Aldundiko Mendi eta Natur Guneen Zuzendaritza Nagusiari, Kultura Zuzendaritza Nagusiari eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari, eta Uraren Euskal Agentziari eta Orozkoko eta Laudioko Udalei.

Sei.– Halaber, parke eolikoaren exekuzio-proiektuaren separata bidali zitzaien honako erakunde hauei: Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoa, Uraren Euskal Agentzia, Iberdrola, Orozkoko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundiko Baso Zerbitzua, Institutu Geografiko Nazionala eta Sustapen Ministerioko Hegazkingintza Zibilaren Zuzendaritza Nagusia.

Zazpi.– Proiektua jendaurrean erakusteko aldian zenbait txosten eta alegazio jaso ziren, honako erakunde eta interesdun hauek bidalitakoak:

Orozkoko Udala.

Itxinape Mendiko Taldea.

Orein Ehiza Elkartea.

Juan Jose Aguirre Picaza.

Izate Ingurumen Taldea.

Laudioko Udala.

Gaizka Amorrortu Bobeda.

Norberto Aldaiturriaga Zorrozua.

Txirpial Elkartea.

Itxina Abeltzain Elkartea.

Retevisión.

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila.

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saila.

Uraren Euskal Agentzia.

Zortzi.– Aurkeztutako alegazio eta txostenen berri ematen zaio Guascor SA entitate eskatzaileari. Entitateak idatziz eman zien erantzuna.

Bederatzi.– Aurkeztutako alegazioak eta erakunde interesatuak haiei emandako banan-banako erantzunak jasota daude dagokion administrazio-espedientean.

Hamar.– Ingurumenaren alderdiei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Ingurumeneko sailburuordeak 2011ko urtarrilaren 11ko Ebazpena eman du eta, bertan, «Jesuriko Parke Eolikoa»ri dagokionez, ingurumen-inpaktuaren gaineko aldeko deklarazioa jaso du, betiere ebazpen horretan jasotako zenbait baldintza betetzekotan.

Gobierno Vasco. También se solicitaron informes al Servicio de Montes de la Dirección de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, a la Dirección General de Montes y Espacios Naturales, Dirección General de Cultura y Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia, así como a la Agencia Vasca del Agua (URA) y a los Ayuntamientos de Orozko y Llodio.

Seis.– Asimismo, se envió separata de proyecto de ejecución del parque eólico a los siguientes organismos: Confederación Hidrográfica del Norte, Agencia Vasca del Agua, Iberdrola, Ayuntamiento de Orozko, Diputación Foral de Bizkaia, Servicio de Montes de la Diputación Foral de Álava, y al Instituto Geográfico Nacional y a la Dirección General de Aviación Civil del Ministerio de Fomento.

Siete.– Finalizado el periodo de información pública, se recibieron informes y alegaciones de los siguientes organismos e interesados:

Ayuntamiento de Orozko.

Itxinape Mendiko Taldea.

Sociedad de Caza Orein.

Juan Jose Aguirre Picaza.

Asociación Medioambiental Izate.

Ayuntamiento de Llodio.

Gaizka Amorrortu Bobeda.

Norberto Aldaiturriaga Zorrozua.

Asociación Txirpial.

Asociación de Ganaderos de Itxina.

Retevisión.

Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

Agencia Vasca del Agua.

Ocho.– De las alegaciones e informes presentados se dio traslado a la entidad solicitante, Guascor, S.A., quien presentó escritos dando respuesta a las mismas.

Nueve.– Todas las alegaciones presentadas y la preceptiva contestación individualizada a las mismas por parte de la entidad interesada constan formalmente en el correspondiente expediente administrativo.

Diez.– Con respecto a las cuestiones ambientales, la Viceconsejera de Medio Ambiente del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco ha emitido, con fecha 11 de enero de 2011, Resolución formulando la Declaración de Impacto Ambiental con carácter favorable relativa al «Parque Eólico de Jesuri», con sujeción al cumplimiento de determinadas condiciones recogidas en dicha Resolución.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bat.– Energia eta Meategien Zuzendaritza da espediente hau ebazteko organo eskuduna, betiere ondoko dekretuetan ezarritakoarekin bat etorriz: Euskal Autonomia Erkidegoan, parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretua, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen irailaren 22ko 514/2009 Dekretua.

Bi.– Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 21. eta 28. artikuluetan ezartzen denez, energia elektrikoa ekoizteko instalazioak eraiki, ustiatu, nabarmen aldatu, eskualdatu eta ixteko, beharrezkoa izango da aldez aurretik administrazioaren baimena izatea.

Hiru.– Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen du maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak.

Lau.– Administrazio-prozedurako arau erregulatzaileetan eta aipatu legeetan aurreikusitako prozedura-izapide eta -baldintzak hartu dira kontuan eta bete ere egin dira, espedientea izapidetzerakoan.

Bost.– Jendaurreko izapidean alegatutako ingurumen-gaiak aztertu ditu, batik bat, Ingurumen Sailburuordetzak, ingurumen-inpaktuaren gaineko deklarazioa egiteko prozeduran, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean ezarritakoarekin bat.

Aipatutako lege-aginduak, eta oro har eta haiekin bat etorriz aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aztertu ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Guascor SAri baimena ematea energia elektrikoa sortzeko «Jesuriko Parke Eolikoa» instalazioa jartzeko Orozkoko (Bizkaia) eta Laudioko (Araba) udalerrietan; hona hemen instalazioaren ezaugarria behinenak:

Sortzea:

8 aerosorgailu; bakoitzak 2,3 MW ekoizten du, 690 V-n, eta 2.600 kVA-ko transformadore igotzaileaz hornituak; transformazio-erlazioa: 30.000 V/690 V; eta SF6n dagozkion gelaxka blindatuak, 36 kV-ko tentsio izenduna lortzeko, aerosorgailuentzako lursistema bakar batekin.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Uno.– La Dirección de Energía y Minas es el órgano competente para la resolución de este expediente, de conformidad con lo establecido en el Decreto 115/2002, de 28 de mayo, por el que se regula el procedimiento para la autorización de las instalaciones de producción de energía eléctrica a partir de la energía eólica, a través de parques eólicos, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco en relación con el Decreto 514/2009, de 22 de septiembre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

Dos.– La Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, determina en sus artículos 21 y 28, que la construcción, explotación, modificación sustancial, transmisión y el cierre de las instalaciones de producción de energía eléctrica estarán sometidas al régimen de autorización administrativa previa.

Tres.– El Decreto 115/2002, de 28 de mayo, regula el procedimiento para la autorización de las instalaciones de producción de energía eléctrica a partir de la energía eólica, a través de parques eólicos, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Cuatro.– En la tramitación del expediente se han tenido en cuenta y cumplido los requisitos y trámites procedimentales previstos tanto en las normas generales reguladoras del procedimiento administrativo, como en la legislación antes citada.

Cinco.– En particular, las cuestiones ambientales alegadas durante el trámite de información pública antes citado, han sido objeto de análisis por la Viceconsejería de Medio Ambiente durante el procedimiento para la declaración de impacto ambiental, de conformidad con lo establecido en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación

RESUELVO:

Autorizar a Guascor, S.A. la instalación de generación de energía eléctrica denominada «Parque Eólico de Jesuri», en los términos municipales de Orozko y Llodio (Bizkaia y Álava) cuyas principales características son las que se indican a continuación:

Generación:

8 aerogeneradores con producción de 2,3 MW c/u, en 690 V y equipados con transformador elevador de 2.600 kVA, relación de transformación 30.000 V/690 V y las correspondientes celdas blindadas en SF6, para una tensión nominal de 36 kV, con sistema de tierras único para el conjunto de aerogeneradores.

Ebakuazioaren ondorioetarako, parkeak bi sektore izango ditu: Jesuri I (9,2 MW) eta Jesuri II (9,2 MW).

Lotura elektrikoak:

Lurpeko kanalizazio elektrikoak, goi-tentsioko hiru faseko linea dutenak (36 kV-ko tentsio izenduna) eta sekzionamendu-zentroraino aerosorgailuen arteko interkonexioak dituztenak, barne direla kontroleko, lurreko eta potentziako goi-tentsioko eroaleak; potentziako eroaleak HEPRZ1 18/30 kV motako polo bakarrekoak izango dira, A1 240 mm²-ko sekzioa dutenak, interkonexioen arabera, guztira 4.371 m-ko luzera dutenak.

Sekzionamendu-zentroa:

Hormigoizko eraikin aurrefabrikatuak; bertan, ekipamendu elektrikoak (6 gelaxka) eskema hau izango du: barra bakuna, gelaxka blindatuak, SF6ko isolamendua (36 kV-ko tentsio izenduna lortzeko), eta laguntza-zerbitzuen transformadorea (100 kVA).

Lurpeko ebakuazio-linea, zirkuitu bikoitzekoa (36 kV-ko tentsio izenduna); parke eolikoko sekzionamendu-zentroaren eta Iberdrolako banatzesare elektrikora konektatzeko puntuaren artean; honako hauek hartuko ditu barnean: kontroleko, lurreko eta potentziako goi-tentsioko eroaleak; potentziako eroaleak HEPRZ1 18/30 kV motako polo bakarrekoak izango dira, AL 240 mm²-ko sekzioa dutenak, guztira 4.067 m-ko luzerakoak. Jesuri I sektoreari dagokion zirkuitua Laudio TA-Aiara TA linean konektatuko da eta, Jesuri II sektorean, aldiz, Laudio TA-Aiara TA 2 linean; bi konexioak euskarri beraren gainean egingo dira.

Instalazioak bete behar dituen baldintzak:

1.– Sustatzaileak exekuzio-proiektua aurkeztu beharko du, 6 hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten den egunetik aurrera, eta aurkeztu ere Energia eta Meategien Zuzendaritzan, onarpena jaso dezan.

2.– Proiektua egitean eta berau gauzatzerakoan, instalazioen titularrak kontuan izan beharko ditu: eragindako erakundeek ezarritako baldintza teknikoak bete beharra, eta, bereziki, Ingurumeneko sailburuordearen 2011ko urtarrilaren 11ko Ebazpenak finkatutakoak; izan ere, ebazpen horren bitartez, Orozko eta Laudioko udalerrietan, Jesuriko Parke Eolikoaren ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazioa formulatzen baita.

Zehazki, aipatutako urtarrilaren 11ko Ebazpenean ezarritakoarekin bat etorriz, parkearen energia elektrikoa ebakuatzeko linea lurperatu beharko da osoosorik, Astepe erreka desbideratzeko ubide bat egin beharko da eta, landarediaren eta animalien gaineko eragina ahalik eta gehien saihestu eta murrizteko, zenbait neurri ezarri beharko dira «Ingurumen Inpak-

El parque, a los únicos efectos de evacuación, se compondrá de dos sectores independientes: Jesuri I (9,2 MW) y Jesuri II (9,2 MW).

Interconexiones eléctricas:

Canalizaciones eléctricas subterráneas, conteniendo una línea trifásica de Alta Tensión en 36 kV de tensión nominal, de interconexión entre aerogeneradores hasta el centro de seccionamiento, incluyendo conductores de control, de tierra y de potencia en Alta Tensión, siendo para ésta última, unipolares de tipo HEPRZ1 18/30 kV, con una sección de 240 mm² en Al, según interconexiones, con una longitud total de 4.371 m.

Centro de seccionamiento:

En edificio de superficie prefabricada de hormigón, conteniendo un equipamiento eléctrico (6 celdas) en esquema de simple barra, celdas blindadas, con aislamiento en SF6, para una tensión nominal de 36 kV y equipado con un transformador de servicios auxiliares (100 kVA).

Línea de evacuación subterránea en doble circuito en 36 kV de tensión nominal, entre el centro de seccionamiento del parque eólico y el punto de conexión a la red eléctrica de distribución de Iberdrola, incluyendo conductores de control, de tierra y de potencia en Alta Tensión, siendo para esta ultima, unipolares de tipo HEPRZ1 18/30 kV, con una sección de 240 mm² en AL con una longitud de 4.067 m. El circuito correspondiente al Sector Jesuri I conectará en la línea ST Llodio-ST Ayala, mientras que el sector Jesuri II conectará en la línea ST Llodio-ST Ayala 2, ambas conexiones realizadas sobre el mismo apoyo.

La presente instalación estará sujeta a los siguientes condicionados:

1.– En el plazo de 6 meses, a contar desde la fecha de la notificación de la presente Resolución, el promotor deberá presentar en la Dirección de Energía y Minas el Proyecto de Ejecución para su correspondiente aprobación.

2.– El titular de las instalaciones tendrá en cuenta, tanto en el proyecto como en la ejecución, el cumplimiento de los condicionados técnicos establecidos por los Organismos afectados y en especial, los fijados por la Resolución de la Viceconsejera de Medio Ambiente, de fecha 11 de enero de 2011, por la que se formula la Declaración de Impacto Ambiental del Parque Eólico de Jesuri, en los términos municipales de Orozko y Llodio.

En concreto, de conformidad con lo establecido en la Resolución de 11 de enero antes citada, deberá procederse al soterramiento completo de la línea de evacuación de energía eléctrica del parque, a la ejecución de un canal de desviación del arroyo Astepe y al establecimiento de una serie de medidas para evitar o minimizar afecciones sobre la vegetación y fauna,

tuaren gaineko Azterlanaren Agiri Gehigarria» izeneko agirian adierazten diren udalerrietan.

3.– Baimen honetaz gain eta aparte, udalen edo probintzien eskumenpeko baimen edo lizentziak eta beharrezko diren beste batzuk ere eskuratu beharko dira, obrak egiteko beharrezko diren neurrian.

4.– Maiatzaren 28ko 115/2002 dekretuko 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, baimen honek berekin dakar, batetik, instalazioak kendu beharra, eta, bestetik, okupatzen duten terrenoa itzultzea, betiere energia elektrikoa sortzeko jarduera bukatuz gero; guztiarekin ere, itzuliko diren terrenoak lehengoratu egin beharko dira. Betebeharra, halaber, baimen honetan ezarritako baldintza eta eskakizunak betetzen ez direnean ere bete beharko da.

5.– Betebehar horiek betetzen direla bermatze aldera, Guascor SA enpresak, abian jartzeko akta ematen denetik aurrera hilabeteko epean, proiektuko obra-aurrekontuaren % 2ko fidantza bat ezarriko du, maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuko 11. artikuluan xedatutakoaren arabera. Fidantza horrek instalazioaren bizi osoan iraungo du eta urtero eguneratu beharko da kontsumoko prezioen indizearen arabera.

EAEko Diruzaintza Nagusian jarri beharko da fidantza hori, dagokion kutxan edo kontuan, eskudirutan edo bankuko abal bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskura.

Fidantzaren diru-zenbatekoa Guascor SAri itzuliko zaio, jarduera amaitu eta gero, eta instalazioak era egokian kendu direla eta lur-sailak itzuli direla egiaztatu ostean.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Industria eta Energia Sailburuordetzaren aurrean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean, hala agintzen baita 4/1999 Legean. Lege horrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 6a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.

en los términos que se recogen en el documento denominado «Documentación adicional al Estudio de Impacto Ambiental».

3.– La presente Autorización se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial y otros necesarios para la realización de las obras, no relevándose al peticionario de la necesidad de obtención de los mismos.

4.– La presente autorización lleva implícita, de conformidad con lo establecido en el artículo 11 del Decreto 115/2002, de 28 de mayo, la obligación de remoción de las instalaciones y la restitución de los terrenos que ocupe, una vez finalizada la actividad de producción de energía eléctrica, dejando en sus terrenos en su estado original. Esta obligación será igualmente exigible en los supuestos de incumplimiento de las condiciones y requisitos establecidos en esta autorización.

5.– Con la finalidad de asegurar el cumplimiento de dichas obligaciones la empresa Guascor, S.A., constituirá, de conformidad con lo establecido en el artículo 11 del Decreto 115/2002, de 28 de mayo, en el plazo de un mes a contar desde el otorgamiento del acta de puesta en marcha, una garantía por el importe del 2% del presupuesto de las obras del proyecto que deberá mantenerse durante toda la vida de la instalación y actualizarse anualmente mediante la aplicación del índice nacional de precios al consumo.

Esta garantía se constituirá en la Tesorería General del País Vasco, en la caja o cuenta correspondiente, a disposición de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en metálico o mediante aval bancario.

La citada cantidad será devuelta a Guascor, S.A., una vez cesada la actividad y previa comprobación de la correcta remoción de todas las instalaciones y la restitución de los terrenos.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de abril de 2011.

El Director de Energía y Minas,
OSKAR ZABALA RABADÁN.